



DEIALDIA, GIZARTERATZEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN 14 LANPOSTU LEKUALDATZE-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO

Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak 2025eko martxoaren 26an emandako ebazpenaren bidez onetsi du Gizarteratzeko goi-mailako teknikarien 14 lanpostu lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia, Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko.

Hautapen-prozesua honako hauetan xedatutakoaren arabera gauzatuko da: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina onesten duena; 215/1985 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duena; azaroaren 6ko 97/2024 Foru Dekretua; Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko otsailaren 24 hartutako erabakia; aplikatzekoak diren gainerako arauak, eta deialdi honetako oinarriak.

OINARRIAK

1. Xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da Gizarteratzeko Goi Mailako Teknikarien 14 lanpostu lekualdatze-lehiaketa bidez betetzea, funtzionario araubidekoak eta C mailakoak, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorrari atxikita, eta plantilla organikoan honako zenbaki hauen bidez identifikatuta:

1-302300-63	1-302300-68	1-302300-73
1-302300-64	1-302300-69	1-302300-74
1-302300-65	1-302300-70	1-302300-75
1-302300-66	1-302300-71	1-302300-76
1-302300-67	1-302300-72	

1.2. Hasieran deitutako lanpostu horiei gehitzen ahalko zaizkie kalifikazio-epaimahaiak deialdia egin duen organoari lehiatzaileen zerrenda (lortutako puntuaren hurrenkeraren arabera) igortzen dion egunean bete gabe dauden lanpostuak ere.

Era berean, lanpostu horiek deialditik kanpo uzten ahalko dira, dela birkokatze prozesuei lotuta gelditzen direlako, dela jarduneko zerbitzura itzultzen direnei esleitzen zaizkielako, nahiz antolamenduan aurreikusitako beste edozein arrazoirengatik.



Halaber, lehiaketan lanpostua lortzearen ondorioz izangaiek hutsik utzitako lanpostuak ere beteko dira lekualdatze-lehiaketa honetan.

Aurrekoa gorabehera, ez dira eskainiko lekualdatze-lehiaketan beste lanpostu bat lortu duten izangaiek hutsik uzten dituzten lanpostuak, baldin eta lanpostu horiek "iraungitzeak" direlako bete behar ez badira edo antolakuntza-arrazoiengatik horiek betetzea beharrezkoa ez bada.

Deialdiko zazpigarren oinarrian aipatzen den lanpostu hutsak hautatzeko epean, deitutako lanpostuen ordeaz, organo eskudunek egin ahal izan dituzten aldaketen arabera egoki direnak jartzen ahalko dira, zerbitzuaren beharren arabera.

2. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Indarrean den araudian xedatutakoaren arabera, lekuz aldatzeko lehiaketa honetan parte hartzen dutenek betekizun hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta esleitutako lanpostuaz jabetzeko unean:

a) Iruñeko Udaleko edo haren erakunde autonomoetako langile finkoak izatea, haien egoera administratiboa edozein dela ere.

b) C mailakoa izatea, Gizarteratzeko Goi Mailako Teknikari lanpostuan.

2.2. Deialdi honetan parte hartzen ahalko dute, betiere eskatutako betekizunak betetzen badituzte, lanpostu-erreserbarik gabeko borondatezko eszedentzian daudenek, bai eta nahitaezko eszedentzian daudenek ere, baldin eta administrazio-egoera horretan gutxienez urtebete eman badute. Horrela, zerbitzu aktibora itzultzea eta lanpostu bat behin betiko esleitzea lortuko dute.

Zerbitzu aktibora lanpostu huts bati behin-behineko atxikita itzuli diren langileak nahitaez aurkeztu beharko dira lekualdatze-lehiaketaren deialdi honetara, behin betiko destinoa esleitu dakien.

2.3. Lehiaketa honetan parte hartzeak ez du ekarriko, inongo kasutan, parte hartu aurretik lehiatzaileek zuten araubide juridikoa aldatzea.

2.4. 2009ko urtarrilaren 1aren ondoren, dagozkien probak gaindituta, Nafarroako edozein administrazio publikotan euskara edo Europar Batasuneko hizkuntzaren bat jakitea derrigorrezkoa den lanpostuetan sartu direnek hizkuntza hori jakitea derrigorrezkoa duten lanpostu hutsak bakarrik hautatzen ahalko dituzte.

Dena den, aurreikuspen hori ez da aplikatuko baldin eta, jakin behar den hizkuntza kontuan hartu gabe, hautapen-prozesuko emaitzak aukera eman balio interesdunari baldintza hori ezarrita ez zeukan lanpostu bat eskuratzeko.

3. Eskabideak.

3.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskabideak hamabost egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina izanen da.

3.2. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek modu telematikoan aurkeztu beharko dute eskabidea, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: “Izapideak eta lizitazioak”, “Lan-eskaintzak”, “Enplegu publikoa”, “Enplegu publikoko deialdiak”, deialdi honi dagokion aipamenean.

3.3. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabidea modu telematikoan aurkezteko unean, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Deialdi honen I. eranskinean ezarritako baremoaren arabera alegatzen diren merezimendu guztiak egiaztatzeko agiriak.
- Lan-bizitzaren txostena, Gizarte Segurantzako Diruzaintzak emana, eta emandako zerbitzuen ziurtagiria, lan egin duten enpresek eta/edo administrazio publikoek emana, bete dituzten lanpostuak egiaztatzeko. Horretatik salbu geratuko dira Iruñeko Udalean emandako zerbitzuen inguruko merezimenduak, horiek ofizioz egiaztatuko baitira.
- Merezimenduen autobalorazio-eredua (II. eranskina).

3.4. Aski izanen da dokumentazioaren kopia arruntak aurkeztea, baina aurkeztutako datuak edo agiriak ez-zuzenak edo faltsuak badira, behar diren erantzukizun penal, zibil edo administratiboak exijituko dira.

Administrazioak edonoiz eskatzen ahalko dizkie izangaiei deialdian parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztutako agirien jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.

Izangaiek behar bezala ordenaturik aurkeztu eta justifikatu beharko dituzte merezimenduak, I. eranskineko baremoan ageri den puntuazio-eskemari jarraituta.

4. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiz, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

4.2. Baztertutako izangaiek aukera izanen dute, bost egun naturaleko epean, behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuta,



erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko. Erreklamazioak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesten duen ebazpenean zehazten den bidetik aurkeztuko dira.

4.3. Ezarritako epean eskabiderik aurkezten ez bada, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Baztertutako izangairik ez balego, behin betiko zerrenda onetsiko da zuzenean, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.5. Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta eta haien gainean ebatzi ondoren, Giza Baliabideetako zuzendariak izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emanen du, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko.

5. Kalifikazio-epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.

5.1. Kalifikazio-epaimahaia kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Rubén Unanua Ruiz, Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaria.

Epaimahaiburua ordezkaria: Xabier Burgui Vergara, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria.

Epaimahaikidea: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeak izendatutako pertsona bat.

Epaimahaikide ordezkaria: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeak izendatutako pertsona bat.

Idazkaria: Margot Moreno Fernández, Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorreko idazkari teknikoa.

Idazkari ordezkaria: Arantxa Campo Mayo, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako idazkari teknikoa.

5.2. Epaimahaia onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoko bost eguneko epean eratu beharko da.

5.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengoa bildu gabe.

5.4. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako ezarriak dauden arrazoiak suertatzen badira. Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzeko, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

5.5. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko du deialdiaren oinarriak aplikatzean sortzen ahal diren arazo guztiei buruz.

5.6. Epaimahaiak aholkulari espezializatuak edukitzen ahalko ditu, eta aipatu aholkulariak zein bere espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan oinarriturik bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.



6. Merezimenduen balorazioa.

6.1. Kalifikazio-epaimahaiak eginen du merezimenduen balorazioa, honako baremo honekin bat:

- a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak: 30 puntu gehienez ere.
- b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa: 10 puntu gehienez ere.
- c) Puntuazio gehigarria, hizkuntzak ezagutzeagatik: 6 puntu gehienez ere.

6.2. Izangai bakoitzak aurreko bi apartatuetan alegatu eta frogaturiko merezimenduak deialdi honen l. eranskinean jasotako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko dira.

Merezimendu guztiak –administrazio publikoetan emandako zerbitzuen ingurukoak barne– agiri bidez alegatu eta frogatu beharko ditu izangai bakoitzak lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztean, salbu eta Iruñeko Udalean egindako zerbitzuei dagozkien merezimenduak, administrazio horrek ofizioz egiaztatuko baititu.

6.3. Epaimahaiak ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik, ezta apartatu bakoitzerako ezarritako gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

6.4. Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu lehiaketan parte hartzen duten izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduen gainean.

6.5. Behin merezimenduen kalifikazioa amaituta, epaimahaiak Udalaren webgunean argitara emanen ditu parte-hartzaileek lortutako puntuazioak, eta bost egun balioduneko epea irekiko du, webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta, interesdunek merezimenduen balorazioaren gainean eskubidez komeni zaien guztia alega dezaten.

6.6. Lehiatzaileek guztira lortzen dituzten puntuetan berdinketarik bada, administrazio publikoen zerbitzuan antzintasunik handiena dutenen alde joko da. Halere berdinduta badaude, adin handieneko lehiatzailearen alde ebatziko da.

7. Izangaien zerrenda lortutako puntuazioaren arabera, eta lanpostu hutsak hautatzea.

7.1. Behin kalifikazio-epaimahaiak aurkezten diren erreklamazioak ebatzita, horrek Udalaren webgunean argitaratuko ditu izangai guztien behin betiko puntuazioak, eta izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta, igorriko dio, espediente osoarekin batera, Giza Baliabideetako zuzendariari; azken horrek, hala badagokio, bidezkoa den ebazpena emanen du, lanpostuak gehitzeko aukerari buruz deialdi honetako lehen oinarrian xedatutakoarekin bat.

Behin aurreko izapidea beteta, parte-hartzaileen eskura jarriko da hautatzen ahal duten lanpostuen zerrenda, Udalaren webguneko deialdiaren fitxan argitaratuta, eta hamar egun balioduneko epea emanen da interesatutako parte-hartzaileek eskaera modu telematikoan egin dezaten, erregistro elektronikoaren bidez.



Deialdia egin duen organoak hautaketa- eta esleipen-ekitaldia egingen du, puntuazio-ordena kontuan hartuta.

Hautaketaren emaitzari buruzko informazioa Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko da.

Adierazitako epearen barruan eskabidea igortzen ez duten izangaiek galdu egingen dituzte lehiaketaren xede diren lanpostu hutsak betetzeko eskubide guztiak.

Lanpostuak hautatzeko epea amaitu ondoren, lehiatzaileek ezin izanen diote uko egin egindako hautaketari.

8. Lanpostuen esleipena eta jabetza hartzea.

8.1. Giza Baliabideetako zuzendariak interesdunen eskaeren arabera esleituko ditu lanpostuak, betiere horiek lortu duten puntuazioarekin bat.

Birkokatutako lehiatzaileei dagokienez, Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileen hitzarmen kolektiboaren II. eranskineko hamaikagarren artikuluan eta Iruñeko Udaleko langile lan-kontratudunen Hitzarmen kolektiboan xedatutakoa beteko da.

Lanpostu hutsak hautatzeak esan nahi du lehiatzaileak berariaz onartzen duela berak adierazitakoen artean esleitu zaion lanpostua, eta ezin izanen dio uko egin.

8.2. Behin lanpostu hutsak esleituta, Giza Baliabideetako zuzendariak dagozkion izendapenak egingen ditu, eta horiek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

8.3. Izangaiek esleipenari buruzko ebazpena jakinarazi eta hamar egun naturaleko epean hartu beharko dute lanpostuen jabetza, eta deialdia egin duen organoak ebazpenean bertan ezartzen ahalko du lanpostuaz jabetzeko eguna.

9. Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta haiek aplikatzeko epaimahaia sorburu ez duten egintzen aurka, errekurtso hauetariko bat paratzen ahal da:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen eta ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahalko da, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.



Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekursoak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an. Giza Baliabideetako zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.



I. ERANSKINA

a) Administrazio publikoan emandako zerbitzuak (gehienez 30 puntu)

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak balioesteko, izangaiek deialdia argitaratutako egunean **lanpostu berean ziurtatuta daukaten antzintasuna** hartuko da kontuan, eta puntu bat emanen zaie urte bakoitzeko.

a apartatuari buruzko azalpenak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituiko zaio.
2. Ez dira aintzat hartuko deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak.
3. Zerbitzu berezien egoeran edo eszedentzia berezian eta unitate organiko baten burutzan edo zuzendaritzan emandako aldiak halako egoeretara igaro zirenean zeukaten lanpostuan emandako zerbitzu gisara baloratuko dira.
4. Laneko eskarmentua egiaztatzeko, lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko da, Gizarte Segurantzako Diruzaintzak emana, baita emandako zerbitzuen ziurtagiri bat ere, enplegu-emaileek emana, betetako lanpostua egiaztatu ahal izateko.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa (gehienez 10 puntu).

b.1) Lanpostuarekin zerikusia duten prestakuntza-jarduerak, 4 ordu edo gehiagokoak, baldin eta dagokion lehiaketa NAO-n argitaratu zen datatik gehienez ere 10 urte lehenago egindakoak badira, 0,10 puntu 10 ikastorduko, gehienez ere 10 prestakuntza-jarduera: **gehienez 7 puntu**.

b.2) Askotariko ekarpenak: **gehienez 1 puntu**.

- Lanpostuarekin zerikusia duten liburu edo/eta aldizkarietan egindako argitalpenak: 0,25 puntu argitalpen bakoitzeko
- Lanpostuarekin zerikusia duten ponentziak, komunikazioak edo hitzaldiak: 0,25 puntu ekarpen bakoitzeko
- Erakunde ofizialek edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek finantzatutako ikerketa proiektuetan parte hartzeagatik: 0,25 puntu bukatutako lan bakoitzeko

b.3) Titulazio ofizialak edo arautuak lortzera bideratutako prestakuntzen esparruan emandako irakaskuntza: 0,10 puntu 10 ikastorduko. Ikasturte oso bat bada eta orduak zehaztu gabe badaude: 0,5 puntu ikasturte bakoitzeko **(gehienez 1 puntu)**.

b.4) Irakaskuntza praktikoa (tutoretzak) ofizialki eratutako erakundeetan; prestakuntza-ziklo bakoitzeko 0,5 puntu: **gehienez 1 puntu**.

b apartatuari buruzko azalpenak:

1. Ikasturte bateko iraupena frogatzen duten baina ordu-kopururik jasotzen ez duten ziurtagiriak 50 orduko ikastaroak balira bezala balioetsiko dira.
2. Ziurtagiri edo diploma ofizial baten bidez egiaztatzen diren ikastaroak hartuko dira kontuan. Ildo horretan, bakarrik baloratuko dira honako hauek antolatutako prestakuntza-ekintzak: Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Planaren barruan dauden zentro edo entitateak; sindikatuak; Iruñeko Udala eta

haren erakunde autonomoak, eta gainerako administrazio publikoak. Baloratzean, halaber, aintzat hartuko dira elkargo profesionalek, mutua profesionalek, unibertsitateek eta ikastetxe ez unibertsitarioen erregistroan izena eman duten lanbide-heziketako zentroek emandako ikastaroak. Erakunde antolatzaileari buruz ezarritakoa betetzen ez duten beste prestakuntza-ekintza batzuetarako, eta Administrazioaren aginduz egin badira edo Administrazioak baliozkotu baditu, izangaiaren erantzukizuna izanen da agindu hori egiaztatzea.

3. Jardunaldietan eta kongresuetan parte hartu izana kontuan hartuko da baldin eta ziurtagirian ordu kopurua edo kreditu kopurua adierazten bada.
4. Kredituei dagokienez, eskola-kreditu bakoitza 10 orduren baliokide gisa hartuko da, eta ECTS kreditu bakoitza (kredituak transferitu eta pilatzeko sistema europarra), 25 orduren baliokide gisa.
5. Osasun arloko lanbideetako etengabeko prestakuntzaren batzordeak emandako prestakuntza kredituek ez dute eskola-ordu kopuru baliokiderik, eta, beraz, ikastaroaren orduak adierazi beharko dira ziurtagirian.
6. Apartatu honetan ez dira aintzat hartuko titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketak, ez unibertsitatekoak, ezta unibertsitatez bestekoak ere; hau da, ez dira aintzat hartuko irakaskuntza arautuan eskuratutako tituluak.
7. Ikasleek graduatu aurretik edo ondoren egindako tutoretzak eta prestakuntza praktikoan egindako kolaborazioak aintzat hartuko dira baldin eta behar bezala justifikatzen badira eta deialdiaren xede den lanpostuarekin zerikusia badute.
8. Apartatu honetan, deialdi honen xede den lanpostuarekin zerikusia duten merezimenduak soilik baloratuko dira, baita zeharkako etengabeko prestakuntza ere (adibidez, informatika, berdintasuna, kalitatea, zeinu-hizkuntza, laneko arriskuen prebentzioa), baldin eta azalpen hauen 2. puntuaren eskatutako betekizunak betetzen badituzte.

c) Puntuazio gehigarria, hizkuntzak ezagutzeagatik: 6 puntu gehienez ere.

- Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza baitira, gehienez ere 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari 2 puntu emanen zaizkio, gehienez ere. Titulu edo ziurtagiri hori eduki ezean, A1, A2, B1, B2 eta C1 mailen baliokidea den titulua edo ziurtagiria baloratuko da, honela:

A1: 0,4 puntu / A2: 0,8 puntu / B1: 1,2 puntu / B2: 1,6 puntu / C1: 2 puntu

- Euskara jakiteagatik, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko euskara jakitea nahitaezkoa ez denean: 2,76 puntu gehienez.

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari 2,76 puntu emanen zaizkio, gehienez ere. Titulu edo ziurtagiri hori eduki ezean, A1, A2, B1, B2 eta C1 mailen baliokidea den titulua edo ziurtagiria baloratuko da, honela:

A1: 0,55 puntu / A2: 1,10 puntu / B1: 1,65 puntu / B2: 2,20 puntu / C1: 2,76 puntu



II. ERANSKINA. Merezimenduen AUTOBALORAZIORAKO AGIRIA

I.- LEKUALDATZE LEHIAKETA

Lanpostuaren izena:

Deialdia NAOn argitaratu zen, data honetan: .

II.-DATU PERTSONALAK

Abizenak eta izena:

NANa:

III.-ALEGATUTAKO MEREZIMENDUAK

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak: gehienez 30 puntu.

IZANGAIK BETE BEHARREKOA		
a) Administrazio publikoan emandako zerbitzuak (gehienez 30 puntu)		
Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak balioesteko, izangaiek deialdia argitaratutako egunean <u>lanpostu berean</u> aitortua daukaten antzintasuna baloratuko da, eta puntu bat emanen zaie urte bakoitzeko.	Esleitutako puntuazioa	Epaimahaiak ez baloratzeko edo zuzentzeko arrazoia (hala badagokio)
Lanpostua: Epealdia:		
Lanpostua: Epealdia:		
Lanpostua: Epealdia:		
Lanpostua: Epealdia:		
Lanpostua: Epealdia:		
BALORAZIOA, GUZTIRA (a apartatua)		



b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa (gehienez 10 puntu).

b.1) Lanpostuarekin zerikusia duten prestakuntza-jarduerak, 4 ordu edo gehiagokoak, baldin eta dagokion lehiaketa NAOn argitaratu zen datatik gehienez ere 10 urte lehenago egindakoak badira, 0,10 puntu 10 ikastorduko, gehienez ere 10 prestakuntza-ekintza: **gehienez 7 puntu.**

	IZANGAIAK BETE BEHARREKOA		Epaimahaiak ez baloratzeko edo zuzentzeko arrazoia (hala badagokio)
	Izena	Esleitutako puntuazioa	
1. prestakuntza-ekintza:			
2. prestakuntza-ekintza:			
3. prestakuntza-ekintza:			
4. prestakuntza-ekintza:			
5. prestakuntza-ekintza:			
6. prestakuntza-ekintza:			
7. prestakuntza-ekintza:			
8. prestakuntza-ekintza:			
9. prestakuntza-ekintza:			
10. prestakuntza-ekintza:			

b.2) Askotariko ekarpenak: gehienez 1 puntu.

- Lanpostuarekin zerikusia duten liburu edo/eta aldizkarietan egindako argitalpenak: 0,25 puntu argitalpen bakoitzeko
- Lanpostuarekin zerikusia duten ponentziak, komunikazioak edo hitzaldiak: 0,25 puntu ekarpen bakoitzeko
- Erakunde ofizialek edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek finantzaturako ikerketa proiektuetan parte hartzeagatik: 0,25 puntu bukatutako lan bakoitzeko



IZANGAIAK BETE BEHARREKOA		
Izena	Esleitutako puntuazioa	Epaimahaiak ez baloratzeko edo zuzentzeko arrazoia (hala badagokio)



b.3) Titulazio ofizialak edo aratuak lortzera bideratutako prestakuntzen esparruan emandako irakaskuntza: 0,10 puntu 10 ikastorduko. Ikasturte oso bat bada eta orduak zehaztu gabe badaude: 0,5 puntu ikasturte bakoitzeko **(gehienez 1 puntu)**.

IZANGAIAK BETE BEHARREKOA		
Izena	Esleitutako puntuazioa	Epaimahaiak ez baloratzeko edo zuzentzeko arrazoia (hala badagokio)

b.4) Irakaskuntza praktikoa (tutoretzak) ofizialki eratutako erakundeetan; prestakuntza-ziklo bakoitzeko 0,5 puntu: **gehienez 1 puntu**.

IZANGAIAK BETE BEHARREKOA		
Izena	Esleitutako puntuazioa	Epaimahaiak ez baloratzeko edo zuzentzeko arrazoia (hala badagokio)

BALORAZIOA, GUZTIRA (b apartatua: b1+b2+b3+b4)		
---	--	--

c) Puntuazio gehigarria, hizkuntzak ezagutzeagatik: 6 puntu gehienez ere.

Hizkuntza/maila	A1	A2	B1	B2	C1
Frantsesa					
Ingelesa					
Alemana					
Euskara					

BALORAZIOA, GUZTIRA (C apartatua)		
--	--	--

IZANGAIAK ESLEITUTAKO PUNTUAZIOA, GUZTIRA (A+B+C) 46 puntu, gehienez ere	EPAIMAHAIK ESLEITUTAKO PUNTUAZIOA, GUZTIRA (A+B+C) 46 puntu, gehienez ere